

EKIMEN BERRIAK ALA BETIKO AMARRUAK

Zarautz (1993.2.22)

Arren eskatuko nizuke, irakurle, ez aintzat hartzea nire sintesirako joera edo jite larregia (beharbada berezko nagikeria eta ezintasuna izendatzeko hitz edertua besterik ez, hauxe ere) eta zuk zeuk erantsi diezazkiozula arrazonamenduari ondo letozkiekeen zehaztasunak oro. Hori ezezik, okerra dela erakusten badidazu ere, benetan eskertuko dizut, noski baino noskiago; ez bainabil buru zorroztasun norgehiagoka harro bezain antzu batean, neure ongiaren alde baizik.

Batzuk, agerian behinik behin, oraindik aitortzen ez duten arren, jadanik askok dakite hirurogeita hamarreko hamarkadaren hegian galdu genuela euskaldunok gure buruaren jabe izateko -neurri batean, behintzat- abagune ezin hobeago bat. Orduan ez baginen gure eskubidezko eskabideak behar den moduan eta behar den tokian azaltzeko gauza izan, ez zen inola ere herria horretarako prest ez zegoelako -bazegoen eta, egin eginean-, "klase politikoa" deritzon horrek, ezjakintasunez edota traizioz, herrien etsaiei amore emanaz bere eginkizuna bete ez zuelako baizik. Aukerak bazeuden: batzuk "onetsiak" izan ziren, beste batzuk plazaratzeko posibilitaterik gabe "madarikatuak" eta geroztik isiltasunaren basamortura eraitsiak. Erraz asma zitezkeen ondorio latzek (hor flakia, oro kukuso), dagoeneko aurrez, ondoz eta goibehez inguratzen gaituzte.

Okerrak probetxugarri izan daitezen, gaur egun egin genezakeen bakarra, nire ustez, zera da: gure buruari galdetu ia nork aukeratu zuen orduan funtsez gaur oraindik nozitu behar dugun "klase politikoa" hau. Eta galderari erantzuterakoan ez ahaztekoa da:

a) totalitarismoak, dena denik, ezin duela gogoz utzi aukera hori herriaren edo adurraren pentsuan.

b) totalitarismoak badituela ahalmen eta baliabide ugari bere asmoak -aipaturikoa barne- atarramenduz burutzeko.

Baina, so ez dagoena geroari deika ari zaio goseari. Beraz, ez zaigu zilegi, historiaren atze aldetik ibiliz, Minervaren mozoiloaren antzera iluntzean bakarrik hegoei eragitea. Albora ditzagun une batez alferrik galdutako denborak eta, igarora igaro, etor gaitezen gaurkora, hots, etorkizunaren egunsentira.

Begi bistan dago gizarte, ekonomia eta politikaren esparruan, munduan zehar eta mendebaldean bereziki, ematen ari diren aldaketek abagune eta ibilbide berriak eskaini eta zabaltzen dizkigutela oraintxe bertan ere, aprobetxatzen jakinez gero.

Horrez gainera -nire susmoak erabat ustelak ez baldin badira, behintzat- gure artean ere egoera politikoarekiko etsipena egunez egun handiagozten ari da, alderdien porrota

nabarmenagoa izaten, abstentzioaren aldeko joera, beraz, areagotzen.... Agian horregatik gogoratu digu arestian Ardanzak aspalditik sobera genekiena: "bere tertzioan mehatxuz izango zarete botatzera behartuak".

Guzti hori dela eta, batzuk herri edo giza ekimenen garaia heldu dela aldarrikatzen hasiak dira. Horretaz konturatuz, hemen kokaturiko partiduak ere, sorgin gurpilean bueltaka, "herri" ekimen berriak asmatzen eta eratzen ari dira, beraiek dituzten akats berberak errepikatzeko, segur aski, eta sor daitezkeen benetako herri ekimenak itoko eta suntsitzeko asmotan beharbada. Adibide ugari ezagutzen dugu: hamaika orain artekoak, oraintsukoak batzuk.

Demokrazia herriaren boterea bezala definituz gero, herri ekimenez ezarri daiteke soil soilik eta, beraz, geure burua demokratizat dugunok herri ekimenen alde, gizarte zibilaren alde bezala izan gara eta izango gara beti. Bitez, bada, ongi etorriak gure artera ere.

Baina, arrazonamenduaren urrats honetan lehengo galdera berbera ematen ari zaigu behin eta berriz bihotzeko zirrikitu sakonenetan: nork egingo du oraingoan bereizketa onuragarri litzaizkigukeen herri ekimen eta sasi ordain hutsen artean? Nork aukeratuko ditu ekimen horien liderrak? Ez ote du lortuko totalitarismoak gure herriaren hurrengo indar bolada berriak ere desbideratzea eta errekueratzea, orain arte sarri baino sarriagotan lortu izan duen bezala?

Azken finean betiko arazoaren aurrean gaude: nola lortu arerioaren zerbitzuan dauden mass-media guztien propaganda argi zein mozorrotuari kasurik egin gabe eta inperialismoaren sare ideologikoetan katigatuta geratu gabe, estrategia askatzaile edo demokratiko bat eratzeko eta burutzeko gai izango den benetako herri ekimen edo mugimendu bat?

Hori oso zaila dela esaten dit alboan norbaitek irriparre dudakor, uztarpeko eta halabehartar bat ezpainetan zirriborratzen duelarik. Baina, hemen ez dihardugu sail horren zailtasunaz edo erraztasunaz, Euskal Herriaren eta Euskaldunon askatasunaz baizik. Bide guztiek, zoritxarrez, ez baitute Erromara eramaten.